

SARRERA/ENTRADA	 BATZAR NAGUSIAK / JUNTAS GENERALES
	2024 URT. ENE: 12
	ZK/N.º 647 ESP/EXP 12/C/08/227

Agiri-mota:

Data:

Nori zuzendua:

Aurkezlea:

Batzarkide taldeak:

Eskaeraren proposamenaren erdibidekoa

2024-01-12

BNetako Mahaiari

Maddalen Iriarte Okiñena, M. Eugenia Arrizabalaga, Susana García Chueca,
Miren Echeveste Lacombe

Euskal Herria Bildu, Eusko Abertzaleak, Euskal Sozialistak, Elkarrekin
Gipuzkoa

IZENBURUA

Gipuzkoako lurraldeko basogintzaren egoerari eta etorkizuneko basogintza-politikari buruzko ponentzia sortzeko eskaera.

ZIOA eta/edo AURREKARIAK

Lehena: eskaera arrazoitzen duten zergatiak

Basogintza, azken urte hauetan, aldaketa sakonak jasaten ari da. Insignis pinuari eragiten dion onddoak kalte handiak ekarri ditu, eta pinu hektarea asko moztu dira. Pinuak egon izan diren sailetan ordezeko beste espezie batzuen aldeko hautua egin da.

Era berean, 70eko hamarkadako industrializazioak eraginda, belaunaldi berriek basoarekiko atxikimendua galdu dute, eta basogintza-sektorea egiturazko arazo batera eraman du aldaketa horrek. Sektore ekonomiko gisa aldaketak jasan dituen bezala, basoa ikusteko modua eta gizartean basoari aitortzen zaion balioa ere aldatu dira. Egurra sortzeaz gain, basoek bioaniztasuna sustatzen dute, CO2a xurgatzen duten ekosistema garrantzitsuak dira, aisialdi-gune maitatuak dira, eta klima-aldaketa erregulatzen dute, besteak beste.

Mehatxu eta erronka berriak ditu aurrez aurre basogintzak. Basogintza eta bioaniztasuna erdigunean jarri eta basogintzari ikuspegi multifuntzional batetik begiratzeko aukeraren aurrean gaude. Behar-beharrezkoa da gertatzen ari diren aldaketa hauek guztiak aztertu eta etorkizunera begira ditugun erronken gainean hausnarketa bat egitea.


Horregatik eskatzen dugu baso-ponentzia honi bide emateko.

Bigarrena: PONENTZIA ZER BATZORDETAN SORTUKO DEN

Ponentzia hau Batzar Nagusietako Lurralde Oreka Berdeko batzordean sortuko da.

Hirugarrena: PONENTZIAK ZER AZTERTUKO DUEN:

Gipuzkoako egungo basoen eta basogintzaren egoera zehatza ezagutzea. Gipuzkoako basogintzak gaur egun sortzen dituen zerbitzuen azterketa zehatz bat egitea. Klima aldaketaren eta bioaniztasunaren galeraren testuinguru berrian, Gipuzkoako gizarteak etorkizunean basogintzatik zer espero duen ikertu eta hausnartzea. Gipuzkoako gizarteak eskatzen duen etorkizuneko basogintzara iristeko tresna eta politikak aztertea.



Laugarrena: proposatutako metodologia

Basoei eta basogintzari buruzko hausnarketak jasoko dira: arlo honi lotutako herrietako, eskualdeetako eta lurraldeko adituenak, lehen sektoreko eragileak, eragile ekonomiko zein sozialak, ingurumenekoak eta beste. Beharrezkoa ikusten bada, beste lurralde batzuetako adituak edo eragileak ekartzeko aukera ere aztertuko da, ikusten bada euren hausnarketa ekarpen baliotsua izan daitekeela ponentzia honen helburuak lortzeko.

Egokia bada, Batzar Nagusietako Mahaiak onartu eta gero, aurrekontu bat egokituko zaio. Azterketa bukatutakoan, taldeak txosten bat egingo du: batetik, Lurralde Oreka Berdeko batzordean aurkeztuko da, eta, bestetik, hausnarketa aberastu duten aditu, proiektu zein eragile guztiei bidaliko zaie posta elektronikoz.

Bosgarrena: Ponentziak noizko bukatu beharko duen azterketa

Ponentziak sei hilabeteko epean burutu beharko ditu bere lanak.

Seigarrena: Ponentziaren izaera

Ponentziaren agerraldien saioak publikoak izango dira, eta *streaming* bidez emitituko dira.

ESKAERA

Batzar Nagusien araudiko 43. artikuluan eta hurrengoetan oinarrituta, proposatzaileek eskaera egiten dute Lurralde Oreka Berdeko batzordean Gipuzkoako lurraldeko basogintzaren egoerari eta etorkizuneko basogintza-politika berriari buruzko ponentzia sortzeko.

Proposatzailearen sinadura
Maddalen Iriarte Okiñena
Euskal Herria Bildu

Proposatzailearen sinadura
Susana García Chueca
Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak

Bozeramailearen sinadura
Maria Eugenia Arrizabalaga Olaizola
Eusko Abertzaleak-Nacionalistas Vascos

Bozeramailearen sinadura
Miren Echeveste Lacombe
Elkarrekin Gipuzkoa batzarkide talde mistoa